EUSKARAREN HERRI HIZKEREN

# ATLASA

**XI**
**Lexikoa**

Ofizioak eta tresnak
Itsasontzia eta eskifaia
Itsas arrantza
Beste lanbide batzuk
Gizarte-bizitza
Pisuak, neurriak, dirua eta koloreak

**Mapak 2565-2796**

EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE
BILBO
2020

*EHHA* egitasmoaren barruan, XI. liburukia ontzeko lagundu duten erakunde publikoak:

- Eusko Jaurlaritza, Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia

*EHHA*ren XI. liburukiaren argitalpenaren babeslea:

- Laboral Kutxa

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektroniko edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

© Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca / Académie de la Langue Basque
Plaza Barria, 15. 48005 BILBO.
http://www.euskaltzaindia.eus
E-mail: info@euskaltzaindia.eus

I.S.B.N. (lan osoarena): 978-84-95438-44-7
I.S.B.N. (liburukiarena): 978-84-120766-1-5
Legezko Gordailua: BI-02514-2019
Inprimategia: Mccgraphics, S.Coop.
Diseinua: Koncepto, diseño y comunicación S.L.

EUSKARAREN HERRI HIZKEREN ATLASA egitasmoa
(2009-2020)

ZUZENDARIA: Arejita, Adolfo

ARDURADUNA:
Videgain, Xarles

KIDEA:
Aurrekoetxea, Gotzon

TEKNIKARIAK:

Abaroa, Aritz
Intxaurbe, Gorka
Jauregizar, Amaia

AHOLKULARIAK:

Atutxa, Isaak
Echaide, Ana María
Etxebarria, Jose Mari

EUSKALTZAINDIAren ekimenez eta haren koordinaziopean sortua da obra kolektibo hau, eta EUSKALTZAINDIAri bakarrik dagozkio obra honen gaineko jabetza intelektualaren eskubideak, Jabetza Intelektualaren Legeari buruzko indarrean dagoen testu bateginak ezarritako moduan.

EUSKALTZAINDIAk beren-beregi agerrarazi nahi die bere esker ona argitalpen honetan parte hartu duten eta elkarrekin lanean jardun duten guztiei, horiek guztiak hurrenkera alfabetikoan aipatzen direla.

Abaroa Cantuariense, Aritz; Arejita Oñarte-Etxebarria, Adolfo; Atutxa Etxebarria, Isaac; Aurrekoetxea Olabarri, Gotzon; Camino Lertxundi, Iñaki; Eguzkitza Bilbao, Andolin (†); Echaide Itarte, Ana María; Etxebarria Lejarra, Jose María; Etxebeste Zubizarreta, Izaskun; Haritschelhar Duhalde, Jean (†); Iglesias Chaves, Aitor; Intxaurbe Etxebarria, Gorka; Jauregizar Ormaetxea, Amaia; Letamendia Pérez de San Román, Juan Antonio; Oyharçabal Bidegorri, Beñat; Segurola Azkonobieta, Koro eta Videgain Castet, Xarles.

# Aurkezpen-hitzak

**Obrak mintzo**

Euskaltzaindiaren historian bigarren mendea jada hasita dagoenean eta euskararen estandarizazioak berrogeita hamar urte bete dituenean, *Euskararen Herri Hizkeren Atlasa*ren XI. liburukia dator guztion eskura. Hortaz, azpimarratzeko moduko datak, horra uztartzen baitira, bateko, Euskararen Akademiak betidanik izan duen asmo sendoa euskararen dialektologia lantzeko eta, besteko, dialektologia horrek egun izan dezakeen esanahia jorratzeko, euskara estandarraren bila. Urrats eta obra adierazgarria, beraz, XI. liburukiarena, bestalde, lana biribiltzen duena eta amaiera-puntuan jartzen duena. Ohi bezalaxe, hona bilduriko datuek berebiziko aukera ematen dute ahozko eta idatzizko euskararen arteko harremanez jarduteko. Horra mintzorik ederrena, euskarari dagokionez.

Izatez, euskalkiek gorpuztu eta norabideratu dituzte, urte luzeetan zehar, euskal hizkuntzaren bilakaera eta ibilbidea. Horren jakitun izan da hasiera-hasieratik Euskaltzaindia, eta lan horri lotu zaio, gogo handiz, bere historia luzean. Egun ere horiek dira euskara batu eta estandar horren ernamuina eta biziberritzeko tresna ezinbestekoak. Gero eta ageriagoak dira euskararen aldaera diatopikoen eta estandar delakoaren arteko harremanak. Halaber, horien bien arteko nondik norakoak biziak eta elkar eragileak dira, historian zehar izan diren moduan. Horretan jarraitzeko ere ezinbestekoa *EHHA*, baita euskalkien arteko mapa berria osatzeko orduan ere.

Pausoak pauso, euskal dialektologiaren lanak behar zuen, ezbairik gabe, euskararen atlas linguistikoa osatzea. Horri ekin zion Euskaltzaindiak aspaldi, eta luzaroko engaiamenduaren emaitza moduan, jada euskalgintzaren plazan dira *Euskararen Herri Hizkeren Atlas (EHHA)* honen I., II., III., IV., V., VI., VII., VIII., IX. eta X. liburukiak, XI. honen aurrekariak, hain zuzen ere.

Hortaz, berriro ere Euskaltzaindiak euskalgintzaren eta gizartean eskuetan jartzen du bere lana, uste baitu horretan datzala bere egitekoa. Egina dagoenak, aldiz, eginkizunak ekartzen ditu eta halaxe da, izan ere, *EHHA* honetan.

Hamaika liburukiotan arnas luzeko lan zehatza aurkituko du liburuki hauen orrialdeetara hurbiltzen denak, jardun ugariko ekarria. Baditu atzean ordu askoren nekeak eta lorrak, on-gaitzak eta gorabeherak. Ezin bestela izan, euskararen errealitatea esamolde, doinu eta soinu askotarikoa baita, oinarrizko batasunaren sustraietan.

Errealitate hori bildu da, ikertu da, eta paperean eta euskarri informatikoan eman da, egungo atlas linguistiko duinek behar duten moduan. Ezin, beraz, aurrerantzean auzitan jarri, hau edo hura, zer non erabiltzen den eta zertarako, Euskal Herri osoa baitago horretan ordezkaturik.

Era berean, Euskaltzaindiak, paperean eta euskarri informatikoan ez ezik, *EHHA*ren liburukiak bere webgunean (www.euskaltzaindia.eus) jarriak ditu dagoeneko eta oraingo hau ere berehala jarriko da. Badaki Akademiak, horrela jokatuz, egitasmo honek duen balio estrategikoa berrindartzen duela eta, aldi berean, egungo premiek eskatzen duten horri beldurrik gabeko erantzuna ematen diola, lanaren nondik norakoak egoki adieraziz.

Osterantzeko asmoak eta gogoak ere baditu Akademiak, orain hemen eskaintzen dena euskararen beste baliabide linguistikoekin batera ager dadin eta Euskaltzaindiaren webgunera hurreratzen den orok ahalik eta informaziorik zehatzena eta hurbilena izan dezan. Horra, besteak beste, Akademiaren ehun urteko mendeurrenak ekarri diguna, gerora ere fintzen eta osatzen joango dena eta dagoeneko gorago aipaturiko webgunean kontsultagai dagoena eta zer esanik ez, ezinbesteko osagarri eta adierazmoldea duena Euskara Ibiltaria erakusketan, non zehatz eta argi eskaintzen ari den, Euskal Herrian zehar, *Euskararen Herri Hizkeren Atlasa*ren edukia, modu grafiko eta didaktiko batean.

Lan horietan euskararen doinuak eta soinuak dira partaide, egungo teknologiak ematen baitu horretarako bidea. Hainbatez, Akademiaren webgunea erabiltzen duenak entzungai izango du hainbat daturen mamia, hitza eta mintza egoki uztartuz. Egitasmo honen etorkizuna ere hortik etor daitekeela ezin ukatu.

Metodologia ez ezik, edukia bera ere aintzat hartzekoa da, hor dagoelako, lehen-lehenik, eta Louis Lucien Bonapartek egin zituen hasierako lanen ondoren, hainbat euskalariren eginahalen eta ametsen emaitza erabakigarri eta eredugarria.

Ehun urte geroago, Euskaltzaindiak horretarako bidea jarri badu ere, ezin baztertu beste askoren laguntza izan duela Euskal Akademiak langintza horretan. Eskerrik beroenak guztioi (zuzendari, arduradun, taldekide eta bestelakoak), eta, bereziki, Laboral Kutxari, berak ahalbidetzen duelako, urtez urte eta eroapen handiz, lan honen argitalpena.

ANDRES URRUTIA
euskaltzainburua

Ubarka

Errota

Arraspe Gibela

Txalopa

# AURKIBIDE OROKORRA


0. Aurkibide orokorra ..... XI

1. ATARIKOA

   1.1. Aitzinsolasa ..... XIV

   1.2. *Euskararen Herri Hizkeren Atlasa*ren ezaugarriak ..... XVI

   1.3. Inkesta-lekuen zerrenda ..... XX

   1.4. Lekukoen zerrenda ..... XXVI

   1.5. Alfabeto fonetikoa ..... XXXI

   1.6. *EHHA*ren transliterazio-taula ..... XXXII

   1.7. Hamaikagarren liburukiaren ezaugarriak ..... XXXIII

   1.8. Erantzutegiaren ezaugarriak ..... XXXIII

   1.9. Mapa motak ..... XXXIV

   1.10. Hamaikagarren liburuko indexak, laburdurak eta ikurrak ..... XXXVII

   1.11. Hamaikagarren liburukiko datuen biltzaile, transkribatzaile eta informatizatzaileak ..... XXXIX

   1.12. Hamaikagarren liburukiaren moldatzaileak ..... XLIII

   1.13. Mapen aurkibideak ..... XLIV

2. MAPAK ..... 1

3. AURKIBIDEAK ..... 367

   3.1. GALDEREN AURKIBIDE ALFABETIKOAK ..... 368

      3.1.1. Gaztelaniaz ..... 368

      3.1.2. Frantsesez ..... 372

      3.1.3. Ingelesez ..... 376

   3.2. SUPERLEMEN INDEXA ..... 380

   3.3. ERANTZUNEN INDEXA ..... 462